

# ALTZA PORRU!

2011ko martxoa / 40. zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ • TEL.: 943 83 28 28  
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G.: SS-418-01

## SAN JOSE EGUNEAN OSPATUKO DA AZPEITIKO URTEROKO TRIKITI JAIALDIA

Egutegiarekin bat eginda dator aurtengo San Jose-tako Trikiti jaialdia. Martxoaren 19an, Azpeitiko Izarraitz pilotalekua, trikiti zaleen bilgune izango da beraz.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak, Azpeitiko udalaren laguntzarekin antolatuko duen ekitaldian, honakoak izango dira oholtza gainera igo eta euren doinuak eskainiko dituztenak:


- Agirrebeña anai arrebak eta Arkaitz Allur
- Javi López Jaso eta Marcelo Escrich
- Itxaso eta Irune Elizagoien
- Esne Zopak
- Edurne Iturbe eta Oihana Irastorza
- Astiasaran anaiak eta Leire

Aurten, izena eta izana lotuta eta egunarekin bat datorrela probestuz, jaialdi izaera berreskuratze-ko apustua egin nahi izan du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak eta hori dela eta, ez da omenaldirik izango.

**NON:** Azpeitiko Izarraitz Pilotalekuan.

**NOIZ:** Martxoaren 19an, larunbata, arratsaldeko 18:00etan.

**SARRERA:** 12 euro



# BATZAR NAGUSIA EGIN ONDOREN, LEHENDAKARI ETA LEHENDAKARI ORDEA ALDATU DIRA

Joan den otsailaren 19an, Orioko Kultur Etxean ospatutako Batzar Nagusian onartu zenez, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteke Lehendakaria eta Lehendakari orde aldatu dira. "Alabier"-ek bete duen **Lehendakari ardura Agurtzane Elustondok hartu du**, eta Alaitz Telletxeak izan duen **Lehendakari orde kargua berriz, Iosu Arrizabalagak**, "Izer"-ek beteko du.

Arduren izendapenean aldaketa izan bada ere, Elkarateak bere lan-ildoari segika, bere proiektu nagusienei eutsiko die. Horrezaz gain, aurtan **hiru egitasmo berri** azpimarra daitezke; **Landakanda panderojolearen biografia** bilduko duen liburu-diskoa, trikitixa ikasten ari diren ikasleentzako **playback edo oinarri musikala** eta **Trikitixa Eguna**.

- **Faborez:** Aurtan pieza zaharren bildumaren bosgarren alea kaleratuko du Elkarateak. Honako lau bikoteek bosna pieza grabatuko dituzte:
  - Imanol Astiasaran eta Izer
  - Elortza anaiak
  - Olarte eta Pello Urdangarin
  - Arkaitz Allur eta Idurre Arriola
- **Aurkezpen erromeria:** Oraindik ere zehazteko dago non egingo den Faborez disko honen aurkezpen erromeria.
- **Geure Koltokik 2011:** laz sorkuntza bultzatu asmoz eta trikitilariak diskogintzara hurbildu asmoz abiarazitako bildumarekin jarraituz, aurtan Geure Koltokik 2011 disko kaleratuko du Elkarateak. Partaide bakoitzak hiru pieza berri sortuko ditu disko honetan jasotzeko. Hauek dira aurtengo partaideak:
  - Laja II
  - Iker Goenaga
  - Epelde
  - Lurdes Alkorta
  - Eneko Dorronsoro
- **Soinuaren liburutegia:** Bilduma honen 8. atala izango da aurtengoa. Landakanda panderojolea izango da protagonista eta bere inguruko liburu-diskoa idazteaz Miel A. Elustondo arduratuko da.
- **San Josetako Trikiti Jaialdia:** Martxoaren 19an, arratsaldeko 18:00etan ospatuko da Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan.
- **Web partiturak:** laz bezala, aurtan ere Joseba Tapiak zenbait piezen bigarren ahotza sortuko du eta partitura horiek, [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com) webgunean. Doinutegia atalean zintzilikatuko dira, nahi duen orok eskura izan ditzan.
- **Playback-a:** Iban Gurrutxagak Playback-erako oinarri musikalak egingo ditu ikasleek trikitixarekin batera jo ahal izateko. Oinarri horiek ere, [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com) webgunean zintzilikatuko dira.



- **Trikitixa eguna:** Zehastu da jada 2011ko Euskal Herriko Trikitixa eguna. Iurreta eta Durango artean egingo da **ekainaren 4an**. Egun horretarako, Oskar Estangak kalejira bat sortuko du. Pieza hori musika eskoletara zabalduko da, trikitixa egunean biltzen diren ikasleek jo dezaten.
- **Inpernuko Poza IX jardunaldiak:** Trikitixaren inguruan hausnarketa eta eztabaida bultzatzeko helburuz, aurtan, jardunaldien bederatzigarren edizioa ospatuko da. Gaia: erabakitzeke dago. Formatuari eutsiko zaio: hitzaldi, mahai inguru eta saio praktikoak uztartuko dira. Donostian izango dira jardunaldiak irailaren bigarren astean; Euskal Jaiei egitarauaren barruan.
- **Nazioarteko trikitixa jaialdiak** aurtan 10 urte beteko ditu. Hori dela eta, musikari eta zaleen arteko elkar eza gutza sustatzeko, harremanak estutzeko eta ongi pasatzeko helburuarekin, asteburu osorako egitaraua antolatzea erabaki da. Oñatiko Lizargarate Trikiti Elkartearekin elkarlanean antolatuko dugu eta bi jaialdi izango dira. Trikitixa eta biolina izango da aurtengo nazioarteko jaialdiaren ardatz nagusia. Data ordea, oraindik zehazteko dago. Urtero gisa, Euskal Herriko trikitilariarekin batera atzerititik etorritakoak ere ikusiko dira oholza gainean.
- **Durangoko Azoka eta Egutegia.** Durangoko azoka, hitzordu garrantzitsua da eta aurtan ere postua izango du Trikitixa Elkarteak. Ordurako zein formatu izango duen zehaztuta, prest izango da 2012ko egutegia.
- **Webguneak:** [www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) webgunean, trikitixaren munduko eta Elkartearen inguruko albisteak, diskografia, argitalpenak eta denda mantenduko ditugu. [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com) atarian bestalde, dokumentazio atalak osatzen eta eguneratzen jarraituko dugu.
- **Altzaporr:** Urtean lau ale kaleratuko dira, hiruhilabeteroko maiztasunari eutsita.

# Disko berriak

## GEZURRA EZ DA EGIA: IMUNTZO ETA BELOKIREN DISKO BERRIA

Plazaratu berri-berria da Imuntzo eta Belokiren azken diskoa. Taldearen lehen lana kaleratu zenetik hogeitaz hamar urtera dator hain zuzen ere, *Gezurra ez da egia* izeneko diskoa. Hainbat erromeria alaitu izan dituen bikote honen diskografia luzeko zortzigarren alea da honakoa.



## HERIOTZAK:

- Abenduaren 21ean hil zen **Manuel Maguregi, Manolo** trikitilaria. Olatzeko erromerian (Mutriku) trikitiari eragiten zionari begira liluratuta gelditu zen txikitan, eta 16 urterekin bere lehen trikitia erosi zuen. Arrate irratitik grabatutako abestiak errepikatuz, belarriz ikasten zituen eta bazterrak alaitzeko erabili. Istripu batek aulkian jarri arren, musikan topatzen zuen behar zuen dena.
- Juan Orbegozo, "**Alegiko Joan**" pandero jotzailea hil zen joan den urtarrilaren 9an. Azpeitiko Endaizpe baserrian jaio eta gerora Alegira joan zen bizitzera. Auntxa osaba-ilobekin hasi, eta Iñaki Garmendia "Laja" eta Eleuterio Tapiarekin ere jardun zuen erromeriaz erromeria panderoa astintzen.

## "ASKO GUSTATZEN ZAIDAN MUNDUA DA ETA GAUZA ASKO EGIN DAITEZKEELA USTE DUT"

Euskal Herriko Trikitxia Elkarteko Lehendakari izendatu zutenetik elkarrizketak eginez ari da etengabe Agurtzane Elustondo soinu-jolea.

Agurtzane oso gertuko izan ditu txikitatik trikiti doinuak eta bere esanetan "debozioz" da soinu-jolea. Legazpiko jaialdi, erromeria eta kalejiretan ibiltzeaz gain, inguruko herrietako eta auzoetako festetan, nazioarteko jaialdian eta hainbat txapelketetan ere ikusi izan dugu soinuaren hauspoari eragiten.

Gara egunkariari jakinarazi zionez, "ustekabeen" jaso zuen izendapenaren proposamena. Hasieran, zalantza izan bazuen ere baiezkoa eman du. Hala ere, "ez dut lehendakaritza hartu eta aurpegia soilik jarri nahi. Zeresana badudala uste dut eta benetan parte hartu nahi nuen" zehaztu zuen.

Elustondo ekonomilaria da lanbidez, nahiz eta soinuarekin duen harremana ere, egunerokoa duen. Legazpin trikitixa erakusten dihardu bai Haztegi ikastolan, baita Doinua musika eskolan ere.

Lanaldiari gogotsu ekin dio; "elkartearantzako onuragariak izan daitezkeen ekarpenak egitea eta bere esku dagoen guztia ematea" da legazpiarraren helburua. Hori horrela, Elkartearen alde "ahalik eta ahalegin handiena" egingo duela gaineratu zuen.



## GALBAHEA

- **Gillermo Aldalur “Pikua”:** “Etxean, arreba zaharrekin zebilen Pedro Elortza, soinu-jole ona: astero lezioak hartu eta harekin ikasi nuen. Koinatuak bidaltzen ninduen soinua jotzera, Arabara. Azkenean fabrikatik bidali egin ninduten, egun asko faltatzen nituen eta. (...) Garai batean Araba Gipuzkoa baino hobeto ezagutzen nuen. Baroja izan zen bidali ninduten lehen herria, Lagranen ondoan. Murgia aldean asko, Estibalitzen, Gaunan... Gipuzkoan gehiena Elosun, jaiero. Erromeria ona egiten zen han. Kiruriko ezkontzetan pasodoblea, baltsa eta tangoa izaten zen normala. Fox batzuk... Dena horrelakoa. Aizpurutxon Bergarako partean baltsean egiten zen, errepidean egiten zen erromeria. Beste aldean ez zuten uzten, muga zen. Orain 50 urte, Loiola Irratiko lehenengo grabazioa Azkuntzak egin zigun, Iturbide zen pandero jotzen. Grabatu egin behar zela eta denok joan ginen koadrilan. Parrandara beti soinuarekin eta soldadutzara ere halaxe joan nintzen. Kristoren erromeriak egiten ziren Casa del Campon. Orduan ez zen telebistarik eta ofizialek “que venga el acordeonista” esaten zuten. Afarietara eta bazkarietara ere eramaten ninduten. Ni paretari begira jartzen ninduten soinu jotzen eta beraiek dantzatzen. Isil-isilik egoteagatik hilabeterako permisua ematen zidaten. Dena kontatuta 18 hilabeteko soldaduskatik 11 hilabete etxean egin nituen.”

**Gipuzkoako Hitza; 2011-02-04**

- **Imanol Arregi “Iturbide”:** “Ni berez lorezain lanetan aritzen nintzen. Panderoa jotzea ez zitzaidan batere gustatzen. Beti esan izan dut “gizonak ibili egin beharko dik hor arratsalde osoan tirri eta tirri panderoa jotzen... hori duk hori aspertua!”. Baina gero hara, pandero-jole izaten amaitu dut. Behin Urrestilan nengoela, taberna batera soinu jolea ekarri zuten, eta pandero jolea falta. Han nembilen ni eta to, panderoa jarri zidaten eskuan eta esan: “Iturbide-tarra haiz eta asmatuko duk!”. Eta ni sekula pandorrik ukitu gabe. Hasi nintzen eta beno, fandangoan asmatu nuen, baina arin-arina ez! Ordutik aurrera ere panderoari ihesi ibili nintzen! Ez nuen maite panderoa, lotsa ematen zidan eskuan ibiltzeak ere. Pandero-jolea nire osaba zen, ez ni! Nik beti esaten ditut bi esaera zahar: *Ez esan inoiz ur honetatik ez dut edango* eta *Hartzak ere dantza egiten dik diruagatik*. Azkenean 36 urterekin erabaki nuen horretara dedi-katzea. Beti izan naiz festa zalea, bai, eta beti dantzarako amorratzen. Jotzen ari izan naizenean ere, plazan jende gutxi dantzan ikusitakoan, behera jaitsi eta jendea dantzan jartzen ere abila izan naiz. Ez dago dantza egitea bezalakorik, osasunerako ere oso ona dela irakurria dut eta ni sinestuta nago. Gaur egungo soinu-jole gazte asko oso onak dira, baina askotan beraien lagunek ere ez diete jarraitzen plazan. Herioa ematen dit niri horrek.

**Gipuzkoako Hitza; 2011-01-07**

## ZESUMA

**Kupela** taldea Getariko “Txakolin jaun” izendatu zuten joan den urtarrilaren 17an. Getariako Txakolina Jatorrizko Izendapenaren erakundeak urtero izendatzen ditu “Mahasti Jaunak” eta omenaldi berezia egin zieten uzta berriko txakolinaren aurkezpen ekitaldian. Kupela Taldeak euskal herritar ugari jarri ditu dantzan, 2008an sortutako *Txakolina Getariko erregina* abestiarekin.

### Korrontziren doinuak Marokon:

Marokotik itzuli berria da Korrontzi taldea. Otsailean, arrakasta handiko hiru kontzertu eskaini ditu Marokon; Tanger-en eta Casablancan esaterako. Harrera ona izan dute eta gustura geratu dira bertaratutakoak, taldeak jakinarazi duenez. Modernitatez jantzitako euskal tradizio eta kulturak gure mugak gainditu ditu berriro ere.

### Maitatu, ikasi, ari,... euskalakari!

**GOSE** taldeak egin du Korrikako 17.ediziorako kanta. Abesti martxoso honekin, Korrika Kulturaleko ekitaldian parte hartzen lehena izan zen talde Arrasatearra, joan den urtarrilaren 28an, Iruñean egin zen Korrika Galan. Apirilean, Trebiñun hasi eta Donostian amaituko den edizio honetan, Ines Osinagaren triki doinu itxaskor hau izango da Euskal Herriko txoko ugaritan entzungo dena.

Maitatu, ikasi, ari,... euskalakari!

### Xabi Arakamak ZESATEK! taldea utzi du

Otsailean diskoa kaleratu zutenetik, zuzeneko laurogei kontzertu inguru eskaini dituzte. Ska, rock eta reggae erritmoak eta taldeari darion bizipoza Karibe aldera eraman eta Kubatarrak dantzan jarri ondoren, urtarrilaren 15ean, Donostian eman zuten biraren azken kontzertua. Jendaurreko hori egin ostean, Xabi Arakama taldeko trikitilariak taldea uztea erabaki du, esku artean dituen beste proiektu batzuei ekin asmoz.

#### Oharra:

Elkartearen datu basea eguneratzen ari gara eta horretarako eskertuko genizueke bazkide zaretenok mezu bat bidaliko bazenute [trikitixa@trikitixa.net](mailto:trikitixa@trikitixa.net) helbidera, zuen izen-abizenak adieraziz.